

Zaborra, arazo iturri

*Birziklatze datu onak ditu herriak:
%81, 2019an. Baina oraindik badira aldatu
beharreko hainbat jarrera eta ohitura,
nola konposta egiteko guneetan
hala zaborra sailkatu eta ateratzeko garaian.
Herritar jakin batzuek ondo egiten ez dituzten
lanak buruhauste eta lan bihurtzen dira
beste batzuentzat.*



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



MINISTERIO
PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA
Y EL RETO DEMOGRÁFICO



Plan de
Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANSICIÓN
ENERGÉTICA Y
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

Zaborra arazo bihurtzen ari da herrian azkenaldian. Noiznahi, zabor poltsak agertzen dira, han eta hemen (argazkietan ikusi besterik ez dago); zabor guztiak nahasian biltzen dituzten poltsak: erreka bazterretan, aparkaleku nagusiko edukiontzien inguruetan, beira jasotzeko edukiontzien ondoan, Arzaren borda izan zeneko orubean, geltokiko zaborrontzietan, Arbel-aitz elkarte atzeko zelaian...

Birziklatze emaitza onak ditu Itsasondok. Sasietak emandako datuen arabera, 2019an %69 eraman zen birziklatzera, eta 2020an, %68,8. Portzentaje horri organikoa gehituz gero, %81ekoa da Itsasondon birziklatzen den hondakin kopurua.

Oro har, oso ondo ari dira herritarrak zaborrak sailkatzeko eta birziklatzeko, baina, tamalez, badira gehiengoak egiten duen lan ona zapuzten eta hondatzen duten hainbat jarrera: zaborrak nahastuta ateratzen dituzte batzuek; herrian ezarrita dauden konpostaguneetara behar ez diren hondakinak botatzen dituzte beste askok. Eta ohitura horiek kalte egiten diote herritar gehienek ahaleginari.

2013. urtean egin zuen Itsasondoko Udalak zaborrak atez ate biltzeko hautua. Sasietak herrian ziren edukiontziak kendu zituen, beira, arropa, pilak eta erabilitako olioia jasotzeko edukiontziak izan ezik. Eta edukiontziak kenduta, kuboetan atera behar izaten dute herritarrek zaborra. Zabor mota bakoitza ateratzeko egun zehatzak daude: astearteetan, papera eta kartoia; asteazkenetan, ontzi arinak; eta igandeetan, ontzi arinak eta errefusa. Garrantzitsua da egutegi hori errespetatzea, gainerakoan Sasietako langileek ez baitituzte etxe atarrietan uzten diren kuboak husten.



Gauza bera gertatzen da bolumen handiko trasteekin ere. Egun zehatza dago haiek ateratzeko: hilabete bakoitzeko bigarren astelehen iluntzea. Sasietako langileek astearte goizetan biltzen dituzte beirako edukiontzien ondoan utzitako trasteak. Baina bada bolumen handiko trasteak edozein egun eta astetan ateratzen duen jenderik ere. Trasteak ateratzeko eguna ez bada, Sasietako langileek ez dituzte eramaten kalean utzitako trasteak, eta, lehenago edo geroago, udal langileek jaso behar izaten dituzte, garbigunera eramateko. Horrek lan karga ekartzen du udal langileentzat, eta horregatik da garrantzitsua kontuan izatea zein egunetan tokatzen den trasteak ateratzea.

Inori trasteak ateratzeko eguna pasa bazaio, edozein egunetan eraman ditzake Ordiziako garbigunera. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:00etara; larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara.

Zaborrak behar bezala sailkatu eta birziklatu behar dira, ingurumena babestu eta kalteak murrizte aldera. Herritarren jarrera ezkorren aurrean, zabor behatzaileak eta kontrolatzaileak jarri dituzte hainbat herritan; Hernanin, kasurako. Eta beste hainbat lekutan zabor sailkapena ongi egiten ez dutenei isunak jartzen hasi zaizkie. Penagarria litzateke halako neurriak hartu behar izatea. Hala-erokik gerta ez dadin, guztion ardura da konpostagailuetako konposta zaintzea eta zaborrak behar diren lekuan eta moduan ateratzea.



OHITURA ONAK

- Ontzi arinak, papera eta errefusa bereizi eta dagokion kuboetan atera.
- Organikoa konpostaguneetara eraman.
- Zaborrak ateratzeko egutegia errespetatu.
- Bolumen handiko trasteak hilabeteko bigarren astelehen iluntzean atera.
- Konpostaguneetara janari hondarra bakarrik bota.



OHITURA TXARRAK

- Zabor guztia poltsa bakarrean nahasita atera.
- Zabor poltsak edonon utzi: erreka bazterretan zein herriko beste hainbat puntu.
- Zaborrak ateratzeko egutegia ez errespetatu.
- Zaborrak erreka bota.
- Konpostaguneetara edozein zabor bota.



Akatsak konpostagailuetan ere

Materia organikoa biltzeko herrian jarritako konpostagailuan ere dena ez da behar bezala egiten. 2018. urtean, organikoa biltzeko sistema aldatzeko apustua egin zuen Itsasondoko Udalak: auzokonpostak jarri zituen martxan. Geroztik, materia organikoa biltzeari utzi zion Sasietak Itsasondon, eta udal langileak arduratzen dira herritarren artean egindako konposta nahastu eta egoera txukunean mantentzeaz.

Berez ordu gutxiko lana izan behar lukeena luzatu egiten da maiz, konpostagailuetan bota behar ez diren zaborrak bereizten eta banan bana ateratzen aritu behar izaten dutelako. Izan ere, konpostagailuetan soilik janari hondarrak bota behar dira, eta askotan, bestelako zaborrak agertzen dira: plastiko zatiak, arrautza kutxak, botikak, preserbatiboak, film gardena, albal papera, belarriak garbitzeko kotoizko txotxak, konpresak...

Janari hondarren artean egoten dira kortxoak eta konposta egiteko poltsa bera ere. Berez, poltsa konpostagarria bada ere, ez da konpostagailura bota behar, Itsasondon biltzen den organikoa ez baita inora eramaten, eta, txikituko ez duen makinari ez izatean, nekez desegiten da.

Ez da komeni lorategietatik eta baratzeetatik ateratako belar txarrak konpostagailuetara botatzea, ezta moztutako belarra eta adaxkak ere. Horregatik eskatzen zaie herritarrei belar, hosto eta adaxkak poltsa batean jaso eta konposta egiteko gunearen ondoan uzteko.

Konpostagailuetatik kalitate oneko konposta ateratzen da, baina aurrez aipatutako hondakinek guztia izorra dezaikete. Horregatik da hain garrantzitsua herritarrek kontzientzia hartzea, eta jan soberakinak edo hondarrak bakarrik botatzea. ■



KONPOSTAGAILUETARA BOTA DAITEKE

- Fruta eta barazkiak.
- Arrautza oskolak.
- Fruitu lehorren oskolak.
- Fruta hezurrak.
- Hezurrak.
- Ogia.
- Kafe hondarrak.
- Infusio poltsak.
- Opilak.
- Oro har, janari hondarrak eta soberakinak.



KONPOSTAGAILUETARA EZ DA BOTA BEHAR

- Plastikoa.
- Film transparentea.
- Albal papera.
- Kortxoak.
- Paperezko ezpainzapiak.
- Sukaldeko paperez egindako bolak.
- Preserbatiboak.
- Botikak.
- Erratzarekin bildutako zikinkeria.
- Konpresak.
- Eta abar luze bat.



ITSASONDO: 2014-2019 (kg/urteko)						
kg/urteko	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Errefusa	24.620	26.460	23.440	22.420	27.540	28.280
Beira	19.210	16.446	21.502	18.743	15.829	22.512
Papera eta kartoiak	21.580	22.380	20.620	19.060	18.260	16.480
Ontzi arinak	25.020	22.580	30.600	28.500	22.720	19.580
Bihondakina	60.400	60.020	53.380	50.700	27.180	20
	150.830	147.886	149.542	139.423	111.529	86.872

ITSASONDO: 2014-2019 (kg/biztanleko/urteko)						
kg/urteko	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Errefusa	37	39	36	35	43	44
Beira	29	24	33	29	25	35
Papera eta kartoiak	32	33	31	30	28	26
Ontzi arinak	38	33	47	44	35	31
Bihondakina	91	89	81	79	42	0
	226	219	227	217	174	136

